



Lora zuriaren udabarri-egunak.—Zoriona zer dan? Giza-ezpan lioñetik aña batera pol-pol dabilen ur-efeka. Umetxoak safi ta eñez edan daroe efeka ortatik. Eta ezpan gañeko iri-bañe eztitsua biotz-alaitasunaren ezaugari argia da-ta, euren lafosa-kusku lakoxe aretan zorion-iri gozoa beti dakusku, aña-ertzean iruntz-tanta lez, dardaraz.

Zorion onek, azalez agertzean, bere biziko izakera ta biziz jarten dauz euren soin lerdenak. Gotzon antzeko buru kiskurak, egaztuteko txiribiri eran ego margoziak dabez, ta udabarri-aldian axea ofi itzaltzu artean pirpirka baño pozago ibili oídira. Eren biotz txikietan eztago bekatxik, eztago ikus-eziñik, ezta girin txañik be, euzkel-idazole jator baten aboz.

Baña, ai! gaur-eguneko umetxorik geyenak adimena argitu ta gauzen izatasuna ezagutzera eldu direaneko zorion ori galdu dabela dirudie. Ezpan goñietan eztager zitoriaren iri garbirik; suge-bañe-iri andura bai ostera. Tamalgaría ziñez!

Teresatxok, alan be, bizitz osoan gorde eban ugutz-eguneko erubakotasuna; bere biotzeko eun zuria ezek orbandu barik garbi jabon eban beti, neguan edur-maindiraz estalduko lafatza iduri. Beti eban aldian udabariañ langoze poz-iria.

Osatzen eroan eben baseñitik amaren altzora biurtu ebenean, edozek ikaratzen eban. Uriko añandia etxakon atsegin. Baseñian lagun lau lauak, oso txiro jantziak ekusan eta uriko ginbail edo kapela egal biribil eta zabaldunak gau-mamuak irudien ta bilduña sartzen eutsen. Eurekandik iges egian oyuka. Ginbaña burutik kenduta baño bat edo batek ez eban besuetan artuko. Iñudea lez apaindutakoentzat ziran bere bafe-eziñik; enparauentzat zurezko biotza, girin-pitxik bakoa ebala esan zeikean.

Laster asi ziran, ofaitiño, bere bizitz-bitxidorak txera ta ereguz ereiten maratz ekion amatxo biotzez maite izaten. Gustiz laztan eban. Egundo etzan bere albotik uñinduten, beti berari oratuta; txakira, eskaratzera ta batez be baratzera amari jañai

bear. Ta bere gomuta aldi oso gogotan eroan egian, jauzi ta zapart, «amatxo, amatxo!» diadar egiten eutson.

Ona zelan dirakurgun Teresatxoren amak Mans'ko lekaimien aztetxeen aurkitzen ziran alabai egindako eskutitz baten: «Neure alaba laztan onek bein be enau itxi gura; beti dabil neuri orauta, ta alde gustietara jafai yatorkit, batez be baratzera; bertan, ostera, eztau gelditu nai, neugaz izan ezik; bestela negar baten asten da ta neugana ekañi bear izaten dabe. Iñok eztautso bakafik maladirik igon eragingo, maña bakotxeen *amatxo, amatxo!* diadar egin barik. Zeinbat maña, ainbat *amatxo!* Ta, zoritzafez, bein baten «emen nago, ene alabatxo», erantzun ezpa-dagiot, berbertan kukulumuxu lotzen da, ez auéra ez atzera geyago zirkiñik be egiteke.

Jaunak beti bere ardura-pean euki eban, baita soin aldeko ta gogo aldeko eskañez aberaztu be, ta biotz txikia oso maitekorra ta malatsa egin yakon. Ta gurasoak tetik eguzki-izpi goriak sorgin-begiz dizdizka. Baratz loratsuko ostaiska ta laña-mao gañetan erle etxekoi ta erneak girin batzen ebilzen. Bide-egalean zurezko jarlekua, ta berlau ezafita Teresatxo ta bere ama alkari-izketan, ařastiko uře-izpiz nastauta, uspel atseden gozoan. Donokiatzaz zan euren autua ta atzenez Teresatxo'k diñotso amari:

—«Ai, ene amatxo, ilgo ba-zintzaz, nirea bai poza!» Amak olango itz zantafak entzunik, ařituta agiraka egin eutson, olako gauzarik geyago aboz ez artzeko-ta, baña Terese txikiak. goyendiko argizpien dirdira begi txatxuetan ebala, erantzun eutson: «Donokira joan zaitezan dirautzut ba-ta, ara joateko il



laztan - maite
ebazan. «Aita
ta ama zenbat
maite nebazan
—dirausku Te-
resatxok--ezin
susmau leike.
Ni neurez nin-
tzan alaya ta
era askotara
agertuten neu-
tsen neure
maitasuna». Zeintzuk e te
ziran era on-
eik? Dakus-
kun.

Udabari ař-
asti zan. Abe
jagien osto ar-

egin bear dala diñozun ezker». Maitasun aldi bardiñak ebazanean aitari be eriotza opa eutson.

Beste bein be, antxe bertan, baratzeko jarlekuan aurkitzen ziran Zelia ta bere Teresatxo pospoliña. Au txirla bere maskor bañuan baño pozago egoan amaren altzoan, gotzon-arpegitik, maitasuna ta zoriona eriola.

Begirakun maitakoña amari zuzendurik, iya donokira joango eite dan itanduten dautso. «Ona ba-zara, bai, joango zara»—erantzun eutson amak.—«Ai, amatxo,—jardetsi eutson—ona ezpa-nintz, gaiztokira joango nintzake? Ez; nik ba-dakit ofetarakoan zer egin: Zu zeruan izango ziñakez eta ni afaplalada baten zugana joango nintzake; gero zuk oso gogor beso artean estutuko nindukezu, ta zelan orduan Jaunak ni atxitu?»

Au bai tolesbakotasuna! Amaren besoetan gorde ezker, Jaun onak ezin eutsola ezer egin uste eban Teresatxo'k. Ta Zelia'k bere alaba kutunaren aotik etozan itzok entzunik, ezekian zer esan eta bekoki erdian egin eutson mosu amakoraren olsa entzun zan axetan.

SANTI, K. O.

Baritsuaren eriotza

Baritsuaren deitzen zan biraotti bat oean guztiz txarto aurkitutenean. Bere egokera larrian biraoa ta biraoa baño ez eukan espanetan. Oretaraxe beti oituta egoan-da, orduraren be ondo ikasita eukan letaña berez erezeten (agozta) eban.

Bere semeak, aitaren egokera negargariaz eruk turik, elezgizon bat ekari eutsan, Jaungoikoaren adiskidetasunera biurtuta baketu al ba'zan.

Elez-gizonak dirautso Jaungoikoaren eruk'tasuna aundia baño audiagoa dala-ta, bere bira eta gaiztakeriakaz ondo damaturik parkaziñoa ta eroapena eskatu dayola.

Gexoa adi-adi dauko, ta damutu gura leukela be ziñestu eiken. Baña eriotzia bertan yatorko, damu-ezaupiderik emon baño arinago. Azkenengo berbak (blasfemiak) biraooak izan ziron. Lendik ikasita eukana. ¡A bai eriotza negargaria! Au ez axtu:

*Bizitzan biraoa ikasi dozu,
Eriotzan alantxe erezauko dozu.*

M.